



Almitza Sega Elkartea
Zaldibia
CIF: G20805941
AS/G/10233/2003

Araudia

- Segalari guztiek, zozketa bukatu ondoren, antolakuntzak zehaztutako denbora bat izango dute egokitu zaien saila ikuskatzeko.
- Segalari bakoitzak sega bakarra erabili beharko du.
- Sega bera edo kirtena hondatuz gero, epailearen baimenarekin aldatu ahalko da.
- Ordezko partzela bat egongo da kasuren batean bigarren aukeraren bat emanda ere.
- Norberak zorroztu beharko du edo, kasu bakoitzean, antolakuntzak adieraziko du bestela nola egin.
- Segalariak laguntzaile bakarria izango du baina honek aholkuak bakarrik eman ditzake. Ez du, beraz, sega zorrozterik ez eta ukitzerik izango. Era berean, belarrik ere ezin izango du ukitu.
- Antolakuntzak zorroztaile behar dela erabakitzen badu, laguntzailea bera izango da zorroztailea eta ez beste inor.
- Belardian uzta edo landare ez ohikoren bat, lurra, harria, egurra edota horrelakorik balego, epaileari jakinarazi beharko zaio.
- Lanean hasi aurretik sega eskuan eduki daiteke.
- Belarra edozein erataria ebaki daiteke kontra-mailan izan ezik, epaileek bestelakorik adierazten ez badute behintzat.
- Baloratzera kontutan hartuko da: Belarra ahalik eta txukunen eta denbora laburrenean ebakitzea. Txukun ebakitzea; belarra berdin, zeharo, mailapean arrastorik utzi gabe, sega kolpe bakoitzaren arrastoak nabarmendu gabe, sail bakoitzeko belar izpi guztiak ebakita uztea.
- Mozketaren balorazioa:

Sail bakoitza moztean hasiko da epaileen puntuaketa-lana. Horretarako irizpide hauek jarraituko dira:

- Sailaren txukuntasuna: 0-4 bitartekoa; 0 oso txukun izango delarik (0, 0'5, 1, 1'5, 2, 2'5, 3, 3,5, 4).

Puntu bakoitzak 8 segundoko penalizazioa izango du eta mozketaren balorazioa ondoko biderketaren bidez neurtuko da:

$$\text{EMAITZA}_{\text{MOZKETA}} = \text{EMAITZA}_{\text{TXUKUNTASUNA}} \times 8 \text{ seg}$$



Almitza Segá Elkarteá
Zaldibia
CIF: G20805941
AS/G/10233/2003

Behin mozketa baloratu delarik, emaitza horri igarotako denbora batuko zaio:

$$\text{EMAITZA}_{\text{GUZTIRA}} = \text{DENBORA} + \text{EMAITZA}_{\text{MOZKETA}}$$

Honela, emaitzarik baxuena duen segalaria suertatuko da garaile eta hurrenez hurren gainerakoak.

- antolakuntza eta epaileen baimenik Gabe, laguntzailea zorroztaile gisa erabiltzea zigortu egingo da. Erabiltzen den aldiro 15 seg.-ko zigorra aplikatuko da gizonezkoen kasuan eta 10 seg.-koa emakumezkoen.
- Lana amaitutakoan, segalariak sega utzi gabe eskua jaso beharko du, kronometratzaileek kronometroa gera dezaten
- Segalariak berak erretiratu beharko du sega, berehala, eta ez beste inork, bere lana amaitutakoan.
- Arau guzti hauen arabera baloratuko da segalarien jarduna.
- Ekitaldi horretako sailkapeneko emaitzan berdinketarik balego:
 - Denborarik laburrenean ebaki duenari emango zaio lehentasuna.
 - Denbora eta penalizazioetan ere berdinketa balego berriz, gazteenari.
- Sailkapen orokorrean berdinketa balego:
 - Denboren batura txikiena duena gailenduko da
 - Denboren baturan berdinketa balego berriz, gazteena gailenduko da.

Arau hausterik egonez gero, epaileen puntuaketan zigorra eragingo du. Esaterako, bukatu ondorenean mototsak ebakitzeagatik 15 seg.koa gizonezkoetan eta 10 seg.koa emakumezkoetan.